

Proposatutako ekintzak programa-akordioan jasotako **lan politikoak** ekarri ditu; lan tekniko horren bidez sakondu da bai Nafarroako Gazteriaren Behatokiak 2015ean egindako gazteen diagnostikoan, bai 2016ko parte-hartze prozesuan jasotako eskaeretan, prozesu horretan **Nafarroa osoko gazteek** esku hartu baitute iritzia emanaz berengan eragiten duen guztiari buruz.

Gazteriaren II. Planak **izaera integrala** du eta ahalbidetzen du –gazteen bizitzaren ibilbidea erraztuz eta bide horretan lagunduz– gazteengan eragiten duten arlo guztietako garapena: hezkuntza, etxebizitza, enplegua, aisia eta astialdia, osasuna, kirola, berdintasuna. Horregatik **zeharkako izaera** du eta Nafarroako Gobernuako departamentu desberdinak koordinatzen ditu.

**Malgua denez**, Planak beharrezkotzat jotzen diren ekintzak egokitu, hobetu eta bere baitan hartu ahalko ditu, gazteen bizitza hobetze aldera.

**Maila exekutiboan**, Gazteriaren II. Planak lau ardatz handi ditu, eta horietako bakoitzean zenbait arlo tematiko bereizten dira. Arlo horiek lotuta daude bata bestearekin, denek dutelako nolabaiteko eragina ardatz guztietan.

**Nafarroako Gobernuako departamentuak inplikatzen eta konprometitzen dituzten jarduerak biltzen dituzte arlo hauek, gazteentzako baliabideak eta aukerak eskainiz.**

Lehentasunezko lau ardatz hauez gain, Planak zeharkako hiru ardatz ditu, eta horiek hiru esparru hauetako helburuak eta ekintzak jorratuko dituzte: **genero berdintasuna, gizarte inklusioa eta euskara.**

**Proiektu handi honetan parte hartzera eta protagonista izatera gonbidatzen zaituztegu, proiektuak zuen bizitzako prozesuetan lagunduko baituzue, honako eremu hauetako alderdi eta balioak kontuan izanik: lankidetzak, solidaritatea, parte hartzea, inklusioa eta berdintasuna.**

Jarraitu gure lana sare sozialetan  
juventud-gazteria... eta  
[deporteyjuventudnavarra.es](http://deporteyjuventudnavarra.es) webgunean



**Parte hartu eta kontaiguzu!**



**Nafarroan gazteriaren arloko helburu, estrategia eta metodoak zehazten dituen tresna da Nafarroako Gobernuaren 2017-2019rako Gazteriaren II. Plana.**

**Nafarroako Gobernuak 2017ko ekainaren 7ko Erabakiaren bidez onetsia**

## 1. ardatza. EMANTZIPAZIOA

helburua

### HEZKUNTZA ARLOA

1. Baterako hezkuntza eta bereizkeriarik eza.
2. Ikasleen parte hartzea.
3. Eleaniztasuna.
4. Hezkuntza ez-formala.
5. Espiritu ekintzailea.

### ENPLEGU ARLOA

1. Gazteak lan munduan sartzea.
2. Gazteen ekintzailletza.
3. Lan munduan sartzea.
4. Lan prekarietatea murriztea.
5. Enplegurako babesa.
6. Enpleguko mahai teknikoak.
7. Aukeren berdintasuna sustatzea.

### ETXEBIZITZA ETA EMANTZIPAZIO ARLOA

1. Emantzipazioa.
2. Alokairu motak emantzipazioari begira.
3. Etxebizitza eskuratzeko informazioa.
4. Finantzaketa.
5. Gizarteratzea.

## 2. ardatza. NORBANAKOAREN PROZESUA

helburua

### OSASUN ARLOA

1. Balorazio soziala.
2. Osasuna eta ongizatea.
3. Osasunerako hezkuntza eta osasunaren sustapena.
4. Aukera osasungarriak.
5. Osasuna mugatzen edo indartzen duten baldintzen azterlana.

### KULTURA ARLOA

1. Sormenaren sustapena.
2. Kulturarako sarrera.
3. Ondare kulturala eta artistikoa sustatzea.

### KIROLAREN ARLOA

1. Kirola parte hartzeko eredu gisa.
2. Emakumea kirolean.
3. Kirola eta balioak.
4. Kirol praktika sustatzea.
5. Gorputz jarduerak sustatzea.

## 3. ardatza. GIZARTERATZE PROZESUA

helburua

### PARTE-HARTZEAREN ARLOA

1. Parte hartzeko baliabideak.
2. Parte-hartzea sustatzea.
3. Gazte elkarten mugimendua sendotzea.

### BIZIKIDETZA ARLOA

1. Gazteen arteko indarkeria aztertzea.

## 4. ardatza. NORBERAREN NORTASUNA ETA TALDE-NORTASUNA GARATZEA

helburua

### GIZARTE-INKLUSIOAREN ETA ANIZTASUNAREN ARLOA

1. Gizarte integrazioa.
2. Bizikidetzaren positiboa ikastetxeetan.
3. Gizartean eta hezkuntzan txertatzea.
4. Kulturaren arteko bizikidetzaren sustapena.
5. Desgaitasuna duten gazteak ikusgai egitea.

### BERDINTASUN ARLOA

1. Rolak eta estereotipoak errotik ateratzea.
2. Genero-berdintasunerako jarrerak eta gaitasunak.
3. Desberdintasunen errespetua.
4. Emakume gazteen inplikazioa.
5. Azarpenari eta sexu-erasoei aurre hartzea.
6. Informazioa hobetzea.

### LURRALDE GARAPENAREN ARLOA

1. Ekimen sortzailea.
2. Berdintasuna informazio teknologiki eskura izatean.
3. Gazteen kontratazioa babestea.
4. Gazteak landa ingurunean finkatzea.
5. Turismo jarduerak, garapen gisa.
6. Ingurumena errespetatzea.

# Nafarroako Gobernuaren 2017-2019rako Gazteriaren II. Plana